

Ebazpena: R032/2023

Espedientea: 46/2017

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 22an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landin batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, AEAT) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, MMR andrearen (aurrerantzean, MMR andrea) egoitza-aldaketaz zehazki (2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 13/2017 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- MMR andreak, ZAEAREN datu-basearen arabera, Logroñoko A kalean du egoitza, eta 2012ko ekitaldira arte PFEZAREN aitortpena ZAEAN aurkezten zuenean, egoitza hori aitortzen zuen zerga-egoitza gisa.

Hala eta guztiz, 2013ko ekitaldian, PFEZAREN aitortpena AFAN aurkeztu zuen, eta Oiongo (Araba) P kalea aitortu zuen zerga-egoitza gisa.

Arbitraje Batzordearen 32/2023 Ebazpenak 13/2017 gatazka artxibatu zuen. Hori ZAEAk eskatu zuen, prozeduraren xedea gerora desagertu zelako, AFAk amore eman baitzuen DGF jaunaren (aurrerantzean, DGF jauna) egoitza —MMR andrea da haren ezkontide— Logroñoko A kalera aldatzeko (2006ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginarekin) egindako proposamenari dagokionez

2.- Logroñoko A kalean dagoen etxebizitza bi ezkontideen jabetzakoa da % 50ean, 2013an Errioxan erosi zuten beste etxebizitza bat bezalaxe.

3.- MMR andreak alta eman zuen ekonomia-jardueren gaineko zergan, salgaien errepideko garraioaren epigrafean, 2006ko urtarrilaren 2tik 2013ko maiatzaren 31ra arte, alegia, kargua utzi zuen arte. Egun horretatik aurrera, garraio-jarduera horren egoitza Oiongo P kalean dago.

Lehen, ogiaren, pastelen eta esnekien txikizkako merkataritzan aritzen zen, Logroñoko M kalean, % 100ean ezkontidearena den higiezin batean.

4.- DGF jaunak Oiongo (Araba) E kalean du egoitza; garai bateko Herri Administrazioen Ministerioan azken hori agertzen da zergapekoaren egoitza gisa; Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusian horixe du egoitza gisa, eta garraiolari gisa jarduten duen egoitza Oiongo G kalekoa da, 2006ko martxoaren 1ean jarduera horretan baja hartu zuen arte. Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, DGF jauna, 2005eko urtarrilaren 1etik 2007ko uztailaren 1era bitartean, Logroñoko eta Oiongo zazpi egoitzatan egon da erroldatuta txandaka, eta azken egoitza Oiongo P kalekoa da.

5.- Hainbat egiaztapen-jarduketa egin ondoren, ZAEAk ondorioztatu du MMR andreak Logroñoko A kalean duela egoitza.

3.- 2015eko otsailaren 20an, ZAEAk MMR andrearen zerga-egoitza Oiongo P kaletik Logroñoko A kalera aldatzeko proposamena jakinarazi zion AFARI, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

4.- Ekonomia Itunaren 43. artikuluan ezarritako lau hilabeteko epea igarota, AFAk ez zion proposamenari erantzun, eta ZAEAk 2017ko abenduaren 4an aurkeztu zion gatazka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeari.

5- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da AFAk alegazioak egiteko eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. AFAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore emanda, onartu egin du ZAEAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio *Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea*.

2.- Amore ematea

Interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera aurkeztu ez denez, AFAk amore emateak, ZAEAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartuta, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea prozeduraren xedea gerora desagertu delako, AFAk amore eman baitu MMR andrearen egoitza Logroñoako A kalera aldatzeko (2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginarekin) egindako proposamenari dagokionez.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta MMR andreari jakinaraztea.